

# + Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 91

Depósito Legal SS. 1092—1959

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

GARAGARRILLA (7) 1962

## KOMUNISMOAREN BILDURRA



Ego-amerikan be, ba-da zurrumurrurik komunismoa dala ta ez dala. Gogorak eta gaxak nunbaiten urte oneek ango Eleizarentzat. Obispo Jaunek, onen jakiñean, sarritan agertu ditue "pastoral" argi eta mamintsuak.

Ara Temuco-ko (Chile) Obispo jaunak azaldu daberenaren zatitxo bat:

"Komunismuarekiko bildur itxuak; ez dagoan tokian be komunismua aurkitu bearraren joera makurrak; komunismua egitez baiño berbaz geiago erasoteak: oneek da-

nok urruñegi erotaten gaitue, eta gero ekonomi eta sozial saillean barrizte-asmo zintzoen danak marxismuz zipriztindu-ak datozala-ta uxatzen dira. Eta jakiña, komunistენტzat ixten ditugu biergiñen alde ezer egite danak".

Poztu egin gaitu Obispo jaun orren bildurrik bage antz-emote zuzen onek. Bai, poztu; guri be ederto jatorkulako; gure artean be ba-da bildur maltzur ori-ta.

Bai, asko dira gure artean "komunista", "sozialista" edo "gorrixka" ez-izena daroenak. Eta dana, Eleizaren dotriña edo gogoa azaldu dabelako. Naikoa da biergiñentzat "bizitzeko" aiña eskatzea, euren alde zer edo zer egitea, uelgarako eskubideak eskatzea, askoren aurrean komunista izateko.

Gure Aita Santuak be, egin dau ba berba; Bilbo-ko Obispo jaunak be bai. "Rojillo" deitu bear geunskioe. Eta olan bai, adierazoko gendukeala egi osoa: gure kristiñautasuna "pasaporte" bat dogula; ez dogula nai zer-ikusirik bere bete-bearrekin.

Arriola



# Seme- alabeen deia



Gaurko gurasoak utsune asko ikusten dabez euren seme-alabeetan; eta utsunerik aundienetarikoa "askatasun-naia, libertade-naia" dala-ta dagoz.

Gure gaurko gaztedian ikusten dogun askatasun-nai au, beti izan da, gizonaren ixoria danekero, sustrai luzedun landarea. Bear bada gaurko gaztedian iñoiz baiño sakonago aurkituten dogu landare onen sustraia. Zergaitik ete da? Nire iritxiz, "Demokrazia" berbak egal guztiak astindu, bastar guztiak barriztatu dauzalako. Baita izan leike "lagun-urkoaren ganako lotsa ta errespetua" asko geitu dalako be; izan leike...

## ASKATASUNA BAI, BAIÑA BAITA LAGUNTASUNA BE!

Gaztedi barriak, ostera, askatasuna bakarrik ez deutso eskatuten bere gurasoari, ez; askatasunaren ondoan zeozer geiago be eskatuten deutso. Zer? Laguntasuna! Gurasoak —zintzoa bada batez be!— iñoiz be ezin izango dau bere seme edo alabearen etorrera bertan-bera itxi. Askotan gainera, semeak kanpotik "askatasuna" eskatu arren, barrutik, ostera, "neurria" eskatuten dau; eta neurriaren ondoan, laguntasuna, bere bizitzaren zear eroan bear daben jobidea, jo-muga. Baiña, nor-

tzuk dira laguntasun au, bizitzako direkziño au ondo erakusten dakienak? Nortzuk?...

## LIBERTADEA BAI, BAIÑA MAITASUNA BE BAI!

Eta libertadearen ondoan, "maitasuna". Maitasunik bageko libertadea, libertade otza, guzti otza da.

Gaurko gaztediak betikotasunaren egarria dauko. Ordu onetako gaztedirik geiena eiota, alperrik galduta dago. Euren bizitza —eta futbol kanpoko malletan dagoanean be bai! —"bakartadea" ei da askotan. Gazteak euren gurasoengandik "libertadea" baiño zeozer geigo eskatuten e dabe. Ona amen, irakurle, gazte batzuek eura gurasoengandik eskatuten dabena:

"Nik, sinizmena, bai, sinizmena eskatuten deutsatez neure gurasoeril!..."

"Nik, "maitasuna", maitasuna, maitasuna!..."

"Nik, konprenziñua!..."

"Nik, bear dan moduko gizona izaten erakustea"...

Irakurle, zure seme-alabak zer eskatuten deutsue?...

Idoyaga-tar Xabier

# Ezkontza, zer?

## EZKONTZA, SAKRAMENTU BAT DA

Ezkontza dala ta ezta, zenbat bidar entzuten da: —"Azkenean be ezkondu dira!... Ordua eben!..."

Onelan berba egiten dabena ezkontza zer dan dakiala esango neuke, ta errazoiagaz gaineral "Azkenean...". Baiña, zer dala uste dogu ezkontza? Mundu onetan nora jo ez dakien mutil eta neska ganorabakoen bizi-tokia? Ez! Ezkontza ori baiño zeozer geiago da; ezkontza, kristiñauon artean, SAKRAMENTUA da, Kristo-k berberak sorturiko Sakramentua. Ezkontzako Sakramentuak bere errespetua bear dau. Ezkontzako Sakramentua mundu onetan bildurriak, oskillak aukeratuten daben bidea danik ezin esan geinke, ez. Askotan entzuten da: "gizon sendoak, gizon onak, emakume garbi ta zintzoak Kristo-ren ondora joan oi dira, ta ez ezkontzara!". Onelan berba egiten dabena ez daki ezkontza ta erlijiosua izatea zer dan.

## NORBERAREN BOKAZIÑUA ZEIN DAN JAKIN BEAR DA!

Erlejosu joatea gauza ona da, guztiz ona; baiña ezkontzara joatea be bai. Zein da biderik onena? Biak dira onak. Bakoitzak ikusi bear dau —ta ona amen bizitzako problemarik aundiema, irakurle! —norberaren "kaidea"; norberak aztertutear dau norberaren barruan, norberaren biotzean Jaungoikoak ereindako azia.

Ez zaitze joan, bada, ezkontzara "joan bear dalako" bakarrik, beste bizi-modurik aurkituten ez dozulako; ez zaitze joan —au batez be!— ezkontzak bere ondoren dakarzan obligaziñuak zebait eta zeintzuk diran jakin bage.

Itaundu daiogun Jaungoikoari, San Paulok legez, bitan, irutan... milla aldiz: —"Nitzaz zer gura dozu?..."

Txiki



# GAURKO GAZTEDIA

**Ziñe, idazti, sendi-aldakuntza, etxegintza, e. a.**

Nork eztaki ze eragintza aundikoak diran gaurko *ziñe* orreik? Umen gustoko indixoen *ziñe* bat emon dabiela? Urrengo egunetan or ikusiko dozuz umeak talde bat beste talde baten aurka, beuren indixoluzmazko txapel, uztañ ta geziekaz guda gogorrian.

Leenago gauberako, aramaiterako edo angeluserako etxeratu egiten ziran. Oññ aramaiterako jo ta gero etxetik atara egiten dira ta gaubeko anabi edo ordubatetan etxeratu. Nork ez daki *gaubeko ibilketa* eta *aññ berandu etxeratze* onek kalte aundiak besterik eziñ leikiezala ekarri?

Gaurko guraso askok ez dakie, edota ez dakien adierazten dabi, beuren seme-alabean eskuetara eltzen diran *idazti* askoen influentzia. Gazteen tartean idazti orreen eragintza aundienetarikoa da.

Egun ontan *biotzberati kaltegarriko teori* bat be sortu da. Agertu dira maixu barri batzuek *umeei gogortxo egiñaz, umeei galzo egiñaz* umeen nortasuna edo personalidada galtzen dogula ta umeei aurtzarroan itxi egiñ bear deutzogula ta erak urteekaz batera, ulertuaz zeintzuek diran on eta gaiztakerirako bideak, onbidera joko dabiela. Orrelako teoriakaz gurasoak eat umeen irakasleak umeen grifañ gaiztoak menperatzea galazota daukie ta umeak zuzenbidera ekarteko bear dan irakaskintzak lurra jo dau. Umeak irakaskintzak edo diziplina on bategaz onbidera eroan leikez eta erakaskintza ori barik, gura ta gura ez, gaiztakeri edo zabarkeri bidera daroaguz.

Oingo *sendi* edo *famili-aldakuntza*, fami-lien erri baten *tinkatu eziña* be ezitze on berako kaltegarria da. Oingo erri aundiak ostatu aundi antzo dira: batzuek joan eta beste batzuek etorri. Eskubiko bizitzakoak ezkerrekoan nortzuek bizi diran ez dakie. Ibili-gura, bazterrak ikusi-gura aundia sortu da. Badakigu batzuek beartasunak, ogi biderik ezak eraginda aldatzen dirala. Gure Eleiza Amaren irakaspen edo dotriñak betetzen eziralako. Senarrak bere sendia, bere emazte ta seme-alabak ondo azi ta ezitzeko beste irabazi bear leuke. Bestela aldakuntza orretatik sortzen da oitura zaarrak, gure oitura onak galtzea, ta alkar ez ezagutzea, ta alkarrerri ez laguntzea, aberrian erbestean baño alkartasun eta artueman gutxiagoaz bizitzea.

Oingo *etxegintza legeak* be gaztedia onbidera eroateko baño galbidean iminteko oreak dira. Sukalde ta gela bi edo iruko


etxeak eztira egokiak, txikiagiak dira. Orrelako etxeetako lekuri ezak, nasaitasunik ezak bertako biztaleei kalera bulsarazten deusie. Ta oindiño askoz be kaltegarriagoa da *sukalderako eskubideaz gala bat alkilatatu* ta lau edo host personako sendiak gela orretan bizitza egitea.

Azkeneko urte onetan beste *oitura barri* bat be sortu da. Gerrate ostean sendi batzuek euren seme-alabak edo prantzez edo ingelez edo aleman ondo ikasi dagien, euren seme edo alabaren bat mugaz bestaldera bidali ta ango seme edo alabaren bat ordiezko gastelarrez irakasteko ekarten dabi. Bañan oitura onek be onura baño kalte geiago ekarriko ez ete dabien ez dakit. Oññartean erri bakoitzak oitura bereziak izan dauz, ta urrerantzean be ez dot uste erbestetako oitura zabarrak gauza onik ekarriko deuskunik.

*Sendi eragintza.*—Sendi dauko ze ikuzirik aundiena gaztediaren ondo edo gaizki ezikuntzan. Zelako sendia, alakoak seme-alabak. Seme-alabak alai ta pozez euren gurasoekaz batara biar egiten dabien eta alkar maitasunezko lokarri sendoakaz lotuta bizi diarn sendietan gaizkintze onen aziak eztau erne ta indartsu azteko alor onik bilatuko. Bañan gaurko mundu zabalean nazio askotxo dira ezkontza ausi ta senarmazteei bananduteko eskubideak emoten dautsienak. Gaztedia arduragetuta edo abandonatuta, gurasoak alkarren aunka, sendia deseginda, gaztedia galbidean iminteko gauza egokiagorik deabruak berak be ezin leiken asmatu. Jaungoikoari eskerrak gure artean, Espanñan, orrelako legerik sortu ez talako. Bañan gure artean be, azkenengo urteetan, gerate ostean, andraen artean sortuta *gurari barri* bat. Gizonen menpean egoterik eztabie gura. Beuren buruaren jabe izatea gura dabi. Askotxok beurentzat beste irabastearren oletan edo beintzat etxetik kanpo biar egitera jo dabi. Batzuek alabearrak eraginda. Bañan ezkonduen artean edo andra-alargunen artean ez leuke alabearrik izan bear. Senarraren alojera edo ojrnala ta andra-alargunaren erretiroa sendia azi ta ezitzeko añakoa izan bear leuke. Erriagintariak onura au lortu arte ez leukie atsedunik artu bear.

Erriagintariok, zeuen begiko ninlari legez begiratu gaztediari. Gurasoak, kontu aundia artu zeuen seme-alabakaz. Danok oindixik asi eginbear orretan. Ez itxi gerotxuagoko. Gerotxuago izan leike ezer eziñ egiñ izatea.





ILDA GERO, BAKEA?

Beste munduko atsedena! Illen bakea! A! Baiña... eztaikit! Berlin-gorriko nagusien aginduz, alderdi aretan ilten diranen gorpueri ezin izango yake aurerantzean beste aldeko kanpusantu kristiñauetan lur-emon. Zergaitik? Uria erdibituten dauan ormea igarotea gatzegi egiten dalako. Antxe geratu bearko dira, ba, betiko gorpu gairxoak, lurpe gorrian, illobi gaiñeko bedarrak atarateko esku batzuk gabe, euren seinde ta lagun guztiengandik urrun... Lurpe gorrian bota gorrien azpian... Beste munduan be gorrotozko mugarriak izango doguz? Ilda gero, bakea izango ete dogu?

EZAN AZKENA!

Kolorado'n, U.S.A.'n, 109 urteko gizon baltz bat il da. Amairu illebate eukazala esklabutzat saldu ehen. Gero, 1873'n urteko gerratean, bere askatasuna lortu eban. Periodikoak onelan ekarren bere eriotzaren albistea: "Azken 'ex-esklabua' il da!"... Egia ete da? Egia azken 'ex-esklabua' il da-la? Esklabutzaren konzetua aldatuta, gaurko gizonok beste "jaun" batzuen morroitza artu dogu. Baiña, ezta ori bakarrik. Geiago dago. Afrika'n oindiño benetako gizasemeen sal-erostea egin oi da, antxiñan legez, eta Indian bertan be, anti-kolonialismuaren naziñuan, esklabuak dagoz. Noiz-arte? Noiz asiko gara guztiok gizarteko mallak danak erreten? Ez goikorik eta ezta bekorik! Danok bardin... Kristoren Karidadean!

Nueva Orleans'ko Arzobispo Jaunaren berbak dira: "Naiko da, naiko!" Naiko, Estadu aretako eskolatan dagoan endaeen berezitasuna, batez be, eskola katolikotakoa! Lotsagarritzko egia da kristiñau askok endaeen berezitasunari eusten deutoela ta burutasun gaiztakerizko orreek leiaz zaiduten dabezala. Noiz ulertuko dogu Kristo edozein gizongan aurkituten dala, naiz zuri, naiz baltz edo ori izan? Noiz jakingo dogu gizon baltz bat oinperatuten dogun bakoitzean, Kristo bera zapalduten dogula? Ez begitu EE. UU.'ko gauzak bakarrik. Gure etxe barrua aztertu. Lagun urkoagaz muurrak eta gogorrek garean bakoitzen, lagun urkoaren ideak errespetatuten ez doguzan bakoitzean... Kristo gorrotatu oi dogu!


BENETAKO ARPEGIA!

Chileko Ikasleen Presidenteak, ikasle barrieri arrerazko berba ederrak esan ordez, zine txiki bat bota deutse, naziñuaren arpegi egiazkoa enkutsiaz:

—Chilen euneko 55 ezer erosteko diru barik dagoz; biarrarako gertu dagozan 2.600.000 gizonetik, 200.000 biar barik dagoz; euneko 2,2 jaunak Chileko 72 % lurra daukez; euneko 85 nekazari, euneko 8,2 lurre-landak erdibituten dabez; 450.000 etxe barri geiago bear dira.

Ondo deritxot. Ederto deritxot ikasle barrieri euren benetako eginbearra erakustea: Justizia ta Karidadea!

Pedro-Mari







## ERRUSIAN BE...

Krutexef, beargin xelebre bat ezagutu nain dago. Askotan entzun dau onetzaz jarduten, eta azkenik deitu egin deutso. Eldu da beargina eta arriturik gelditzen da sartuaz batera: Ango aberastasuna eta ango zera! Eta Krutexef-ek diñotso: "Bost urte barru onelakoxe etxea eukiko dau Errusiko beargin bakotxak". Eta gero, xelebretasun bat botateko ta, zirikatzen dau. "Jauna! —erantzuten deutso langilleak— Zu bai zareala xelebria! Motela naz ni zure ondoan".

Ezetz esaten da baiña Errusian be egiten da marmarka. Onelako gertaerak periodikoak ez ditue ekarten baiña erriak ba-dakiz".

## AITA SANTUARI OMENALDIA

Joan dan azaroan, 80 urte bete ditu gure Aita Santuak. Jai au zala ta, 25 gabeko 10-etan Italia-Radio-tik "Biglietto di augurio al Santo Padre" izenpean, omenaldi berezi bat eskeini eutson mundu guztiak Aita Santuari. Lenengo agurra Japon-etik etorri zan, ume talde batek xamurkiro kantatuaz. Gero, Sydney-tik, Gilroy kardenalaren zorion agurra. Ondoren, Pazifikoko gainean joian abioi batek bialiko mensaje bat. Gero, Buenos Aires-tik; Manhattan-dik (New York) oitura diran sirena eta kaiñoi danbadak. Atlantidako Adelaida-tik, jakitunen XI espediziñoak be bialdu eban bere agurra. Ondoren, Pazifikoko-an zear joian barku bateko kapitanak zorion-agur beroak barku-tar danen izenean. Eta Fatima-tik, Montserrat-etik kantariak. Londresko BBC-tik Fischer anglikano ospetsuaren berbeekaz; eta Paris-etik, Finlandia-tik, Munich-etik "Domine, salvum fac Pontificem" abestuaz eta Dofner kardenalaren

berba beroekin. Gero Italia-ko umeak bertsoz eta "Tu es Petrus" kantatuaz. Ia gaberdian, Jerusalem-dik Aita Prantziskotarren eleiz-otoitzak, arabez Aita Santuaren alde otoitz bat esanaz. Azkenik, Belengo Natibite-eleizko kanpai txairoak.

Au izan zan bazter guztietako katolikoak, mundu osoak, Aita Santuari egindako omenaldia. Ederra benetan eta zer esan nai aundikoa.

## BENETAKO JOLASERIK EZ!

"Domekero-domekero joaten naz ziñerako txartela erosten. Izerdi tantak kostatako txartela! Ziñetik urtendakoan lau zati egiten dot eta zazpi eguneko amets guztiak be an joaten dira... Astelenean, nazkagarria jat bearra egitea; nazkagarria atzoko eguna, eta nazkagarria aiñ amets kutunak laga bearra, eta nire bizitza aiñ utsa!... eta datorren domekako ziñeaz ametsetan asten naz."

Ara gazte bateren autortza. Ametsak bear eta ametsak igesi!

Erantzuna?

—¿Zeiñ penagarria dan sorturiko ametsak txertatuko dituan jolasak bakarrik aurkitzea!

## BERBETA BARRIA

California-n, San Diego'ko ikastola bateko neska-mutillak berbete barri bat asmatu dabe. Brusan ipinten dituen orratzekin egiten dabe berba. Orratzak bata bestean azpian badagoz "Etorri zeinkeze, bakarrik nabill" esan gura dabe. Kurutza egiten dagoazanean: "Lagun bat daukat baiña ez deutso ardura". Eta V legez badagoz: "Urtetea nai neuke, baiña benetan gero!"

Gaztedi onek edonorentzat dauko biotza saltzen! Negargarria!

Ara zelan dagoan gaurko mundua... Biotzak azokan!

Erosi ete lei gizadi au Jaungoikoaren odolagaz? Kristauak bagara gure eskuetan dago.



# Ezkongaiak Norteamerikan

Entzun izango dozu Norteamerikan ezkontz-austea edo dibortzioa larregi zabaldua dagoala. Gaitz onen iturria ta jatorria aztertuko doguz.

Norteamerikan ezkontzako gaitzak, geienak beinepein, ezkongai-aroen dauke sorrera. Lau ezkontzatik bat galdu egiten da, edo austeko bidean jartzen da.

Norteamerikan, neska-mutikoez txikitatik asten dira alkarren arteko artu-emonetan, eskolan, kafean, dantzan... Eta askok uste dabe orrek olan izan bear dauala. Askatasun-eritxi onen babesean urtetan dabe biñaká gazte askok, igetargiari begira egurasten, zaindari-lagun barik. Ta ezkondu be laster ezkontzen dira gurasoen baimenagaz edo a barik.

Amar urtegaz asten dira mutikoez euren "andregaiá" ikusten. Emen bertoko jendea ezta arritzen gu lez, baiñan eurak be ikusten dabe neska-mutillen arteko artu-emon oneik arriskua babilaká gizartearentzat, eta batez be kristiñau-familiarentzat.

Norteamerikako gazteak gaur legezko askatasunik ez dabe ezagutu sekulan, ezkontza-gai saillean. Eurentzat negargarriak dira antxiña Europan eta oraindik lurralde askotan egiten diran ezkontzak. Etxeko ondasunak eta gizarte-maillak zer-esan aundia eben famili aberatsetako seme-alaben ezkontzetan. Ezkontza orreititik, amarretik bederatzi, maitasun alkartzeak ez baiña, derrigorrekoak izaten ziran. Diruagaitik, etxeko edo sendiaren abizena beste ospetsu bategaz alkartzeagaitik, eta abar. Iparamerikako ezkongai bateri eztago olako alkartze bat eskeintzerik.

Emen baktotzak egiten dauz alegiñak bere ezkon-laguna aurkituten. Orretarako neskeak soñeko dotore ta idigia, kolore bizikoa aukeratuten dau; orrazkera barriena, ta arpegi ederrekoa eztanak, itxuraldatzen dau auts eta ukenduz, alde guztietatik usain gozoa dariola.

Norberak atrapau bear dau laguna, ez gurasoek edo osabak. Txinako familietan gurasoek billatzen eutsoen senargaiá neskeari. Gurasoen bete-bear sakratua izan da au. Alabak gurasoengan ipintzen eban uste osoa, beretzat egokien zana aurkituko ebelako itxaropenez.

Olakorik ezta gertatzen Erri aundi onetan. Emen maitemindutea, arnasa artutea bezin errea da. Alan da guztiz be, gurasoek seme-alaben ezkontzetan, oneik uste daben baiño zer-ikusi geiagoda dauke.

Dana dala, ezkongaietan goizegi asteak naiz okerrrik dakar. Ikasleak denpora asko galduten dabe, ta batzutan goizegi ezkontzera beartuak izaten dira. Eta alkar ondo ezagutu barik ezkontzen dira asko, euren bizitza guztian zoritxarreka izateko.

Ezkongai-aroen laguna aukeratzeko izan bear leuke, gauza bat erosten azokara edo dendara urtetan danean legez. Eta norbera, dan lez agertu bestearen aurrean, itxurakeriz nor bere izakera ezkututzen ibilli barik. Laguna bera dan lez ezagutu bear da, ta bere birtute ta akatsekaz osorik artu.

Norteamerikan arrisku aundia dauko ezkontzak galduteko, alkar ondo ezagutu barik eta goizegi ezkontzen diralako, eta baita be legek ezkontz-austea lagatzen daualako Estadu batzuetan.

Norteamerikan gizarte-sail guztietan dago beste iñon ez lako askatasuna, eta ezkontza-gaietan zer esanik be ez. Baiñan autortu bear dogu, emen eunetik irurogetamabost famili zoriontsu dirala.

LOINAZ'ko KARMEL  
Washington, Maiatzak 26 - 1962





# Pilliparen Ezkontza

(Esne-zaltzaillearen ipuia)

Pillipa zan neskatillea, Pillipa! Eguzkiaren izpi gozoak idigiriko larrosa lirain-usaintsu bat irudian. Galanta zan, lilluragarria oso gure Pillipa bere ogei urtekaz.

Peruk-eta, Antoniok-eta ez eben inoren bearririk izan au jakiteko. Amaikatxu begirada samur eta kihu gozo egiten eutsen eurek egunak zear! Lorik be ezin eben egin aspaldion bere gomutaz. Eta, ez uste, Pillipari be atsegin yakozan mutillok. Peru mutil ederra zan. Baiña aspalditxotik Joanito eban begikoen: ezkondu be pozik ezkonduko zan Joanitogaz, berak gura izanezkeroan. Eta ara, domeka illuntze atan, Joanitok gozo-gozoro zerau esan eutsen Pillipari belarrira: beragaz ezkonduko zala! Olakorik orraitio!...

\* \* \*

Pillipak baiña, doterik ez! Ta dotea bear-bearrekoa ezkontzarik egitekotan; Joanitok be ez eukan diru larregirik-eta.

Asmauko ete zeunkie, irakurleok, Pillipak izan eban biotz-samiñaren garratza? Arek igaro eban gau-egunak! Ez lo, ez jan, ez bizi!... Triste-tristerik egoan gizajea. Doterik ez orraitio, ezkonduko erea eukita...

\* \* \*

Esne-saltzera urten eban goiz atan be, Pilliparen ezipanak ezin eben loretu beste egunetako irribarrerik. Betillunetz ioian gaxua. Baiña nok esan eban illunaren ostean argia etorri oi dala? Ia zelan be ezekiala, biderdi inguruan itxaropenezko zer batek killikatu eutsen barrua gure neskatilleari: Beingo baten lortu al izango eban doterako beste diru. A pozal!

—“Aitak emon deutsun ezkeru —inotson barruari—, esne au ez dozu zeurea? Ara ba zer egin reinkean beronegaz. Ogei bat peseta balioko deutezu, ezta?, gitxienez? Pesetokaz dozena bat arrautza erosi al izango dozu ondo be. Udabarría datorenez, arrautzok olo-loka bateri jarri, ta laster

ikusiko dozu zeure burua txitaz inguratutik. Txitok ollanda ta ollasko egitean, nok esan eurokaz artu al izango dozun dirutzea? Ta diru orregaz txarritxu bat be erosi al izango dozu, azur luzea ta jatuna. Aurten ezkurra ugari dau, bai?, ta laster jo araziko deutsozu txarritxu orreri tripaz lurra. Txarri orrek izango dauan urdaiaren lodi-gozoa! Beintxa bat erosi ezeze. boltxikoan gordetako be naiko dirurik emongo deutsu, ziur. Ta beintxa orrek, andi egitean, batek ba-daki zenbat ume emongo deutsuzan! O! Zorionekoa zeu, Pillipa! Izango ete da gero errian zuk besteko doterik egingo al dauanik?... Ta gero Joanitogaz ezkondu!!!”...

Gai oneri ekin da ekin ioian gure neskia. Burua irikiten; biotza barriz, taupada berotan! adurra be ba-erion gaxuari pozen-pozez da!

\* \* \*

Aldatza jatxitean ostera, busti be ba-egoan-da, laprast eginda, etxaku ba ankaz gora jausten gure gazte ederra? Agur aren esne, arrautz eta txita! Agur aren txarri, beintxa ta txaltxu! Ezer be barik geratu yakun ederra. Ez dote, ez mutil, ez ezkontza!

Ezer be barik gero! Biotz-miñez, ori bai, biotz-miñik larrienaz.

Ez ba; ez eban ezagutu nire aitita zana-ta. Jakingo eban osterantzean bere onoko bertso onen egia:

“Askotan dirudie  
gure esperantzak  
osoro txakurraren  
gaberdiko ametsak”.

Nire aitita ez baiña, Pillipa ezagutu dozuen irakurleok: Ezteritxazue obe norbere lepoa makillatu barik, inorenetik ikastea?

Bada-ezpadan be, gogoan artu “Pillipatxu”-ri jaoa.

Pelix Bilbao



# KALEKO

# ARRISKUAK

Aita Santuak eta baserritar-gazte.

"Erri aundietako olgeta ugariak ezer be ez dira baserriko etxe-baketasunaren ondoan. Baiña baserria ixtea pentsatu badozue, ez daiteala izan amets eta ustekeri zar batzuegaitik". Aita Santuaren berbak.

Bai orixe, geure Aita Santuek eta Juan XXIII' ak bein baiño sarriagotan zabaldu deuskuez erri aundiak gazteentzat gordeten dituen arriskoak, batez be baserrietatik datozenentzat.

Erri aundi bat edo kalea, buru asko daukazan suge ikaragarri bat lakoa da, eta inguratuten jakozanak iruntsiteko prest dago beti.

Problema bizia

Gaurko-gaurkoa dogu problema au. Beren erri-txo ta baserriak itxi eta erri aundietara doaz biar eta etxe billa gaur asko. Zergaitik? Era askotakoak dira arrazoi ta motiboak, eta, dana dala, emen ezin geinkez azaldu.

Errira jo-bear onek ordurarte ezagutu ez eben lur barr̄ batera aldatuten ditu. Onetariko gazte guztientzat kaleko egite ta joerak barriak dira. Besteekaz batera bizi ta biar egin bear onek zorabiatu egiten ditu gure gazteak. Au penagarria da.

Kalera bizi-modu billa doazenak alde batera itxita be, gazte asko domeka ta jai arratzaldetan errira joaten dira. Kaleak gazte oneentzat ustekeri zikin asko gordeten ditu.

...Eta gero gerokoak:

Gizon zastar eta galduen adiskidetasunagaz, pentsatu be egin ez ebezen zenbat gure oker ikasten ditue. Eta batzutan, osasuntsuak ez ba-dira batez be, euren gorputz gazteak beingoan txakildu ta gaixotuten jakez eta ospitalera sartu bearrean

aurkituten dira. Baserrietako aize garbi, egurr̄ ta nasaitasun sendoareen orde, zine, taberna, ta dantza-lekuetako lurr̄n loa dauke. Gero or lurr̄ ten dira orrenbeste gazte gorputz illak legaz ta leetan zear.

Gatx oneek erri eta azteko, lur sakonenak ta bernak dira. Ementxe bertan, orroa ta alareu zib̄ñen artean, asten da gure gaztea zatarkeri ta oker zale diran gizon orreen berba ta egiteak oituten. Baserritar gazte onek ementxe galduta dau bere gurasoenganako biotz-zabaltasuna; bere anaiakaz be illun eta gogor agertuten da. Eta ta bernan topau ditun lagun lotsabakoagaitik galduta dau, batez be, bere biotzaren erdian daroa neskanganako benetako maitasuna eta errespetoa. Erlejiñoak ez dauka ia onentzat leen lako aunditasunik, txikikeri bat dala uste dau, eta azkenean eleizea ixten dau.

Zine ta teatroak? Zenbat ondatuten ete dituel. Bakiña bat gazte sartuten da ate zabal oneentzat saloi illunetara. Pantailako zatarkeriegaz beḡ garbiak zikinduten dituen bitartean, zenbat pen-tsamentu lotzagarri buruan...

Anai Yon Zabalgo

5'garren orritik dator

EZKUPEKOA ZORRA?

Joan diran urteetan eskupekoa zor biurtu jaku. Ez dakit nik nundik eta nora, eta zergaitik, baiña ondo zerbituak izan nai badogu, bearrezkoa dogu nun-nai eskupeko bat emotea. Derriorrezkoa gure joan-errietan diru mordotxo bat eskupekoetarako gorde-tea.

Eta eskupekoa ez da saria. Ez da zorra. Bar-sariak beeregi badabiltz, jaso daizala jaso bear dituanak eta ez daitela inor eskupekoak kentzen ibilli.